

Anaitasuna

VI URTEA - N.º 60

Suplemento de la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Maiatza (5) 1959

Zer pasetan da Cuba-n?

«Ni ez naiz komunista —esan deute, joan dan aprillean, Fidel Castro-k, Cuba-ko Lenengo Ministruak, Estadu Alkartuetako politikoei—. Ni ez naiz komunista, eta Cuba-k ez daroa komunista izateko biderik. Errevoluziōan, neure alboan egon da Eleiza Katoikoa, eta euneko larogetamarrek jarraitu deuste erriko gentearen artean.»

Auxe esan dau Fidel Castro-k, eta egia utsa da.

Cuba-n ez da egin errevoluziōa, komunismoa bertan sartzeko, oker dagozan gauzak zuzen ipinteko baiño.

Aspalditik gauza bi, batez-bere, egon dira gutzi oker Caribe-ko isla zoragarri orretan. Bata gobernuko gizonen egoismoa, eta bestea labradoreen miseria.

Agintari geienak, erriari jaramon egin barik, euren probetxurako bakarrik gobernetan izan dabe naziñoa. Ia danak aberaskuntza aundiak batzen zituen euren gobernu demporan.

Bitartean erria, batez-bere baserritarra, miseria gorrian bizi zan, beti alogereko, beti pobre, segurantzaz sozial barik, urte gutzirako lana topa eziñik.

Olan ezin eikeen beti jarraitu gauzak. Aspaldiko azken urteetan, an or emen alegia andiak egiten zirean politikoen artean, naziñoaren egokera lotsagarri ori aldatuteko. Erriak pozik ikusten ebazan alegiñok, eta

danak itxaroten eben, egun batetik bestera, benetako demokraziaren agerkundea.

Baiña... zer jazo zan? Egun ori ez zan etorri. Lengo lez, dana geratu zan illunetan. Politiko zarrak ez zituen euren oitura zantarrak itxi nai, eta militarrek euren privilegioak galdu gura. Eldu zan momentua: 1952-ko martiaren 10-ean, Fulgencio Batista-k indarraren bitartez artu eban gobernua. Ordurik ona, agintarien aldetik, dana izan da Cuba-n odola, eriotzea, lapurretea.

Egokera ori amaituteko, ez egoan errevoluziōa baiño beste biderik. Errevoluziōak nagusi urten dau, eta bizitza barri bat asi da Cuba-n momentu onetan. Gobernu barria adoretz beterik asi da gauzak konpontzen eta aintziñako okerbideak zuzentzen. Sustraira doa oraingoan.

Orretarako, beste gauza askoren artean, gauza arrigarri bi egin ditu: baserritarren artean bear dan moduan lurrak partitzen asi, eta lengo gobernuko kriminalak fusilatua.

Lurrak ondo partitzea ez da komunista izatea, Jaungoikoaren legea betetea baiño. Eta fusilamenduok, Cuba-ko eleizgizonen eritxiz, «legitimoak dira, justiziazkoak dira, eta ez vengantzazkoak.»

Guk, euskaldun kristiñauok, egiaren alde egon bear dogu beti, eta ez lekurik emon gure biotzean guzurrari.

Thieta

Katolikoak Cuba-ko erreboluziñoan

Hispanoamerika-ko katolikoak erreboluziño bateri iñoiz lagundu badeutse, seguru segurutik euren laguntziñoa ez da eguno izan Cuba-ko katolikoaren bestekoa. Asikera asikeratik jarri zirean Batista tiranoaren kontra. Orreta-



AITA BASTARRIKA

Sermoi baten argi ta garbi kondenatu eban militarren altzamentua

rako ez eben errezibidu goiko ordenarik; berez imiñi zirean erreboluziñoaren alde, Batista-ren diktadoreak gizonaren dignidade eta eskubi-deak lotsa barik zapaltzen zituan-da. Bide ori arturik, katoliko militanteak erakutsi eben, urduri ta artekadu ibilten dakiela, ez bakarrik erlegiñoaren kontra zerbait egiten danean, baita legearen, justiziaren eta moralaren kontra—morala esangura nasaiean ulertuta— zeredo-zer egiten danean-bere.

Batista-ren gobernuak, diruzko mesede ta guzurrezko fede manifestaziñoakaz, Eleizearen laguntzaille lez agertu gura izan eban sarri askotan; bere alboan euki nai izan zituan katoliko eleizgizon eta laikoak, erriaren simpatia irabazteko; baiña ori gorabeera, katoliko geien geienak gobernuaren kontra jarri zirean beti.

Batista-ren gobernuak guzurrezko deklaraziñoak egiten zituan erreboluziñoaren kontra, eta gau ta egun esaten eban, Sierra Maestra-ko errebeldeak “komunistak”, “asesinuak”, “terroristak” zireala; baiña alan ta guzti-bere, katoliko asko erreboluzionarioen artera joan zirean eta euren bizia galdu eben, iñoiz eta iñon izan dan gobernurik zantarrena Cuba-tik kanpora botatearren. Au ezin leiteke ezelan-bere ukatu: katolikoaren zentzun publikoa gobernuaren kontrarioa zan.

Jaungoikoari eskerrak, erreboluziñoak nagusi urten dau. Orain, artikulua onetan, katolikoak matxiñada orretan zer egin daben esan gura dogu. Ez dogu egiten arrokeriz. Bakar bakarrik egiten dogu, Evangelioak diñoskun lez, obra onen argia zabaltzearen, lengo gobernuaren guzurak bapeztutearren eta katolikoak Batista-ren alboan momentu baten-bere egon ez direala danak jakin daien.

KATOLIKO MILITANTEAK

Katolikoaren artean, gazteak izan zirean Batista-ren gobernuaren kontra lenen lenen jarri zireanak. Zentzun publikoa irakiten asi zan, katolikoaren gazte abertzale batzar bat gobernuak gogortasunik aundienagaz banandu eban-ean. Guanajay errian batu zirean katoliko gazteak 1953-ko maiatzaren 21-an; eta Amalio Fiallo verbetan egoala, urretu jakozan poli-ziak eta agindu eutsen “iru minutuan” amai-tuteko. “Iru minutuan —erantzun eutsen Fiallo-k— ondo esan leiteke Cuba-n pasetan dan guztia”.

Gerotxuago, katoliko sasidirigente batek gezur gaiztoko deklaraziño batzuk egin zituan Aziño Katolikoko gazteen eta euren eleizuzen-darien kontra. Esaten eban deklaraziñoetan, katoliko gazte asko erdi komunista zireala eta motivu politikoakaitik gobernuaren kontra jarduten ebela. Kardenal Arteaga-k, bere autoridade guztiagaz sartu bear izan eban eztabai-dan, eta ixildu egin zituan alde batekoak eta bestekoak. Baiña ordurako, egia asko esan zirean aberriaren bizimoduaren gaiñean.

Cuba'ko krisi politikoa gorengo maillara eldu zanean, naziñoko Instituziño zivil guztiak organismo bakar baten batu zirean. Ezin eitekezan falta batzar orretan Aziño Katolikoko mutil gazteak. Organismo orrek, abertzaletasun eta adorez beteriko deklaraziñoak egin zituan, eta dokumentu guztietan beti agertu zan Aziño Katolikoko gazteen presidentearen izena. Golpe aundia izan zan au gobernuarentzat. Arrezkero asi zan Eleizearen kontrako persekuziñoa. Lenegotan persekuziño ori, ixillekoa izan zan. Ez jakon konveni gobernuari aurrez aurre gogor egitea: ez eban "Eleizeagaz tope egin" gura. Antonio Fernández Nuevo-k, Gazteen Kontseju Nasionaleko presidentear parte artu eban telebisiño alkarrizketa baten, eta bertan adierazo eban argi ta garbi Cuba-ko katoliko gazteen pentsamentua ta eginbearra.


ZEZEILLEKO MANIFESTUA

Bitartean, naziñoko naste-borrastea gero ta aundiago egiten zan. Bere aldetik, Aziño Katolikoko Gaztediak, bere fundaziñoaren ogetamargarren aniversarioa ospatuten eban, 1958-ko zezeillaren (febreruaren) 11-n. Ez egoan jai egiteko humorerik, eta dana egin zan ixillean. Baiña Kristiñau Gaztediak bere kontzientzian sentietan eban, naziñoko zoritxar aundien gaiñean Manifestu bat egiteko obligaziñoa. "Bere aniversarioa zelebretan dauan bitartean —esaten eban dokumentuak— Cuba-ko Kristiñau Gaztedia ezin leiteke ixillik egon aberriaren sufrimentuen aurrean (...) Cuba-ra bakea ekartzeko, Deretxozko Erregimen bat bear dogu lenengo, bere gerizpean segurantza osoa euki daien kristiñau soziedadeko balore basikoak: bizia, integridade fisikoa, askatasun individuala (...). Bere eskubidea guztiz aundia izanarren, ezin leike iñok justizia egin, berak beretara. Orretarako dagoz tribunalak. Eurak bakarrik esan leikee nor dan errudun edo errubako. Eta pekatu astuna egiten dabe Jaungoikoaren aurrean, investigaziñozko metodu gogorregiakaz eta zivilizaziñoaren kontra dagozkanak, egia atarateko, ikaragarritzko tortentuar eta tratamentuar akusatueri emoten deuteezanak. Pekatu aundia egiten dabe, kartzetetan edo tortentu lekuetan, kristiñau moralaren eta naziñoko lege penalen kontra dagozan gorpuzteko kastiguak emoten dituenak, eta

oraindiño txarragoa dana, legezko investigaziñoa egin barik eta errutasuna komprobatu barik, zirti-zarta ilten dabenak."

MARTIRIAK

Gobernuaren tormentuzko metodu ikaragarriak, Kristiñau Gaztediak denuntziatu zituanak, ez zirean bigundu orregaitiño, eta beste metodu barria, oraindiño zorrotzagoak, asmatu zirean. Batista-ren morroiak urte urretik jagoten zituen kristiñau gazteen batzar lekuak, eta arrezkero euren aktividadeak, nai ta nai ez, gitxitu egin zirean. Gobernuak egiñiko martirien listan laster asi zirean agertzen Aziño Katolikoko gazteen izenak. Matanzas-en, traidore batzuk il eben Pedro René Fraga, eta bere gorpua etxe goitik beera bota eben kalera. Habana-n, iru mutil gazte, Luis Morales, Juan Fernández Duque eta Ciro Hidalgo, Aziño Katolikoko buruzagi puntarengoak, hostatu baten egozala, poliziarren eskuetan jausi zirean, eta izugarritzko tortentuak igarota gero, irurok galdu eben bizia. Euron gorpuak entregatu zituenean, poliziak explikaziño guztizat esan eben ze, "konturatu barik, erratu egin zireala". Lau martiriok, onenatarikoak zirean Aziño Ka-



ANTONIO FERNANDEZ NUEVO

Telebisiño alkarrizketa baten adierazo eban katoliko gazteen pentsamentua ta eginbearra

tolikoko gazteen artean. Luis Morales ingenierua zan, Santiago de Cuba-ko Arte ta Ofizio Eskolako profesorea, eta beñola Oriente-ko privintzian Kristiñau Gaztediko Kontseju Diozesanoko presidentea; gazte onek, anaja bi euz-



MONS. ENRIQUE PÉREZ SERANTES

Errevoluzioaren aurrean personalidaderik urtenena

kozan fraille eta arreba bat monja: arek La Salletarren artean, eta au Karidadeko Seroren Institutuan.

Beste martiri famadu bi be, José Antonio Etxebarria ta Fructuoso Rodríguez, organizaziño Katolikoetako sozioak zirean. Lenengoa, Colón-en Zaldunen Ordenakoa, eta bigarrena Cuba-ko Katoliko Zaldunen Alkartasunekoa.

1956-aren azken illeetarik aurrera, Sierra Maestra-ra zuzentzen zirean Cuba-ko gaztediaren justizia ta libertade gurariak. Laster sartu zirean kristiñau gazteak, tiraniaren kontra Oriente aldeko mendietan asi zan kurtzadan. Asko, mendira bertara joan zirean, errebeldeen gudari taldea geituteko. Beste asko, gelenak, erretaguardian geratu zirean, sarritan frentean bertan baiño arrisku geiagogaz. Santiago de Cuba-n, Enrique Canto-k—Diozesiko Aziño Katoliko guztiko presidentea bera— ixillean jarduten eban "Garagarril 26 Movimentu"-ko tesoreru lez, eta gazteen biotzetan sartzen zituan errevoluzioaren pentsa-

mentu ta amesak. Frank Pais-en asesinatua-
ren ostean, gobernuko morroiak bere billa asi
zirean gau ta egun, eta embajadore espaiñola-
ren laguntziñoagaz Espaiñiara iges egin bear
izan eban, eta probatu arrezkero, beste askok
lez, desterruaren mingostasuna.

Santiago de Cuba-n, Aziño Katolikoko emakumeak be, parte aundia ta importantea artu
eben matxiñadan. Gaur dakigu, launako zelule-
tan bear egiten ebela ixillean; eta Aziño Ka-
tolikoko dirua kobrakeran, bide batez Movi-
menturako kontribuziñoa batzen ebela. Bildur
barik portatu zirean beti diktadurearen au-
rrean, eta ekiñaldi guztietan izaten zirean eu-
rak aurrerengoak. Oraindiño gogoan daukogu
arako protestazko manifestaziñoa, Dolores Ko-
legioan mezea entzunda gero, errosarioa es-
kuan, kalerik kale egin ebena.

Gobernuaren kontrako Institutuziñoen artean,
guztiz ondo bear egiten eben Kristiñau Uni-
versitario Agrupaziñoak. Eurak-bere gogor
sentidu eben diktadurearen zigorra, eta galdu
zituen mutil lagunik zintzoenak. Javier Calvo
Formoso, José Ignacio Santa Cruz Pacheco,
Julián Martínez eta Ramón Pérez Lima, bata
bestearen atzetik jausi zirean betiko tiranoa-
ren eskuetan oeste aldeko gerra tokira joan gu-
ra izan ebenean José Ignacio Lasaga-k, Agru-
paziñoako gizon famaduak, ixillean lan egin
eziñean, iges egin bear izan eban erbestera, go-
bernuko txakurrak bere billa urre urretik ebi-
tzan-da.

Azkenik, errevoluziñoak nagusi urten eban-
ean, errepublika barriko kargudunen artean,
antxe ikusten doguz katoliko militanteak; ondo
irabazita euken erriaren konfiantzea, aberria-
ren alde aibeste neke igaro ebenak

ELEIZGIZONEN AVANGUARDIA

Gobernuaren kontrako erresistentzian parte
artzeko libertade geiago laikoak eukiarren,
eleizgizon askok-bere gogoz jardun eben zer-
egin errevoluzionarioan.

Bearbada, Batista-ren indarrezko golpearen
kontra bere critxia agirian lenen lenengo era-
kutsi ebana, Aita Julian Bastarrika, frantzis-
kanoa, izan zan. Fraille gaztea bera, Katoliko
Gaztediaren Kontsiliarioa. Batista-ren golpe-
tik egun batzukurrenean, Aita Bastarrika-k

sermoi baten argi ta garbi kondenatu eban militarren altzamentua.

Aita O'Farrill izan zan gobernuko morroien zigorra lenen sentidu ebana. Abade onek zerikusit estua eukon, ixillean jarduten eben erreboluzionarioakaz. Poliziako gizonak azkenean atrapatu egin eben, erruki barik astindu eta giltzapean sartu; Arteaga Kardenalaren bitartekotasuna bear izan eban kartzelatik urten eta erbestera joateko.

Alde batetik erlegiñoak eta bestetik aber-tzaletasunak eraginda, Sierra Maestra-ra bertara joan zan Aita Sardiñas, Isla de Pinos-ko parroko jauna, errebeldeen artean kapellau izateko. Laster jarraitu eutsen zeregin onetan Aita Lukas Iruretagoiena frantziskanoak eta Aita Rivas jesuiteak, eta gerotxuago Aita Cabero-k eta Aita Guzmán-ek, Jesusen Kompañiakoak.

ERREVOLUZIONARIOAK, KAPELLAU ESKE

Tiranoak iges egin baiño apurtxu bat lenago Willian Morgan-ek. Escambray-ko bigarren Frente Nazionaleko Buruzagi Generalak, karta bat bialdu eutson Mons. Raúl del Valle-ri, Kardenal Arteaga-ren sekretarioari. "Gutariko

geienak —esaten eban kartan— katolikoak gara. Kristiñau erlegiñoan azi gara, eta fede sendoz siñisten dogu bera bakarrik dala egiatzkoa. Emen, leku onetan, errietarik urrun gagozala, eta batez-bere eriotzea egunean egunean ain urre ikusten dogula, sazerdote bat edo geiagore artean euki gura geunke, bizitza espiritualean jagon gaiezan, noizik noizera mezea esan eta kristiñau dotriña irakatsi deiskuen, eriotzako orduan kontsola eta ilda gero gugaitik erreza daien". Laster asi zirean Habana-ko eleizagintariak orretarako alegiñak eginen: baiña bitartean Batista-ren gobernua jausi egin zan, eta ezin bete izan zan Escambray-ko erreboluzionarioen guraria.

Aita Antonio Albizu-k, Manzanillo-ko parrokiako fraille frantziskanoak, artu-emon aundia euki eban Celia Sánchez-egaz, Fidel Castro-ren laguntzaille zintzo eta emakume katoliko bizkorragaz, gudarieri lagunduteko eta errekaduak ara ta ona eroateko.

Aita Chabebe, Santiago de Cuba-koa, sarri komunikatzen zan edozein laguntziñotarako Raúl Castro-gaz, Fidel-en anaiegaz, Sierra Cristal-ean.

Bitartean, Habana-ko abade batzuk errevo-



AITA ALBIZU

(Erdiko fraille gaztea). Artu-emon aundia euki eban Sierra Maestra-koakaz



AITA BIAIN ETA KARDENALA

«La Quincena» ren Direktoreak beti agertu eban bere konventzimentuen indarra, bere eritxien logika zorrotza, bere espirituaren zabaltasuna, baiña batez-bere, libertadearen eta justiziaren alderako, bere maitasun sutua

luziño zelula baten lan egiten eben euren modura. Askotan, gobernuaren kontrako paperak eta dokumentuak parroketan eta komentuetan imprimatzen zirean ixil ostuka. Errebeldeak eurak-bere, sarritan, eleizetxeetan ezkutatetan zirean, poliziaren eskuetan ez jaustearren. José Antonio Etxebarria, San Frantzisko komentuan egon zan ostuta ainbeste demporan; andik urtenda egun batzugarrenean, traidoreki il eben gobernuko asesinuak. José Mari Cardona Doktorea, gero errepublika barrian Lenengo Ministria izango zana, Espiritu Santu eleizan egon zan ezkutatuta, eta aolan beste asko ta asko.

Morales, Fernández Duque ta Hidalgo, Kristiñau Gaztediko dirigenteen asesinatuaren ostean, naziñoko katoliko guztiak turdiduta geratu zirean, eta Habana-ko eleizgizonak manifestu bat idazteko batzar bat egin eben. Dokumentu orretan esango eutsen Batista-ri, odolezko metoduak itxiteko eta, naziñoaren onerako bazan, gobernu bera abandonetako.

Laster konturatu zan Batista, manifestuak eukiko eban influentziagaz, eta alegin guztiak egin zituan dokumentuaren publikaziñoa galarazoteko. Eta lortu egin eban bere asmo okerra.

Orrezaz gaiñera isla guztian zear esaten zirean «erresistentziatzko mezak», erreboluziñoaren triumfua Jaungoikoari eskatuteko; eta egiten zirean bildur bako sermoiak, egiaz beterikoak, gobernuaren ustez «suversivuak», gizonaren bizitza, libertade ta dignidadearen gaiñean kristiñau dotriña utsa irakasten ebenak. Beti egon zirean eleizgizonak gazteen alboan, eta kezka barik esaten eutsen, Cuba-ko erreboluziñoa legitimoa zala, eta pekatu barik gobernuaren kontra jardun eitekela.

Libertadearen egunsentia agertu zanean eta Fidel Castro Santiago de Cuba-n triumfalki sartu zanean, sazerdote komisiño bat joan jakon agur emoten, eta erriagaz bat eginda, bloztez goratu eben Cuba-ren libertatzaillea.

OBISPO JAUNEN JARDUNA

Movimentu katoli'ko onetan, Santiago de Cuba-ko artzobispa, Mons. Enrique Pérez Serantes izan zan, erreboluziñoaren aurrean, personalidaderik urtenena. Beiñola, Fidel Castro gobernuaren eskuetan prisioneru jausi zanean, berak, artzobispoak, alegin guztiak egin zituan, militarrek bizia parkatu eioen. Eta jaritxi egin eban bere asmoa. Influentzia aundikoak izan zirean bere karta pastoralak, batez-bere diktadurearen azken egunetan idatzi ebana.

Ain arteza ta argia izan zan Oriente aldeko artzobispoaren ibilkerea ze, Fidel Castro-k. Santiago de Cuba-n triumfalki sartu zanean, beingoan eskatu eban beragaz egotea. Eta gero, Céspedes Plazako meeting gogoangarrian, artzobispa izan zan verba egin ebenetariko bat.

Beste eleizgizon zintzo bat, Matanzas-ko obispa, Mons. Alberto Martín Valverde izan zan. Gobernuko gizonak Pedro René Fraga, Kristiñau Gaztediko maixua, asesinatu ebenean, deklaraziño adoretu batzuk egin zituan: illaren bizimodu ta ibilkera zuzena goratu ostean, ukatu egiten ebazan gobernuaren akusaziño guztiak, eta segiduan esaten eban, erreboluziño movimentuetan parte artzen ebenak ez zireala terroristak eta kriminalak. Baita

diktadoreagana be joan ei zan, baten baiño geiagotan, gobernuari largetako eskatuten eutsola.

Mons. Evelio Diaz, Pinar del Rio-ko obispoak, "Bakearen aldeko Otoitz" eder bat publikatu eban. Laster zabaldu zan oraziño ori nazio osoan eta errezetan eben Cuba-ko ia familia guztiak. Alarmatu egin zan gobernu zabalkunde orren aurrean, eta leku askotan galerazo egin eban otoitzaren errezua, kaltegarria zalako atxakiagaz.

Azkenik, ezin geinke ixillean itxi, Mons. Luis Centoz-ek, Aita Santuaren Nuntzio Apostolikoak egiñiko lana. Lan zuurra ta sakrifizioz betea. Lan ixilla, baiña guztiz probetxugarria. Amaikatu errebeldek ez eben galdu bizia, Nuntzio jaunaren bitartekotasunari eskerrak! Orain dakigu zelan ontzat artu eban beti katolikoen ibilkera bizkorra, eta zelan eutsi eutsion Habana-ko eleizgizonen manifestuari bere indar guztiakaz. Diktadorearen azken egunetan, Columbia kuartera joan zan, errazoibako bombardeamentuen akabua Batista-ri berari eskatuteko.

«La Quincena» ta bere Direktorea

Diktadorearen arerioen artean, aparteko lekua merezi dau "La Quincena", Habana-ko

fraille frantziskanoen amabosteroko errevisiteak. Dempora guztian, valentia ta adoretz beterik jakin eragin eban katolikoen pentsamendua ta ideologia. Ulertu be ezin leiteke, zelan idatzi al izan zituan gobernuaren kontra artikulua ain gogorrak. Orrezaz gaiñera, Aita Iñazio Biain, errevistearen Direktorea, beti egon zan prest, edozein alegiñeri bete bete eusteko, erreboluzioak urtenbide ona euki eian. Eleizgizonen movimentu guztietan egon zan presente Aita Biain, eta beti agertu eban bere konvintzimentuen indarra, bere eritxien logika zorrotza, bere espirituaren zabaltasuna, baiña batez-bere, libertadearen eta justiziaren alderako, bere maitasun sutua.

Beste gauza asko esan leitekez, Cuba-ko erreboluzioan katolikoak zer egin daben adierazoteko. Batzuk ez dira iñoiz jakingo. Beste batzuk barriz, geldi geldika agertuko dira, matxiñada izugarri onen historia egiten danean. Bitartean, begoz emen idatzita gure anaien egitada printzipalak.

KATOLIKOEN ITXAROPENA

Esperantza aundiagaz eta, era batera, urduritasun ez txikiagaz begiratuten deutse etorkizunari Cuba-ko katolikoak.



SIERRA MAESTRA-KO GUDARIAK
«Gutariko geienak, katolikoak gara»

Komunistea da Fidel Castro eta bere "Julio 26 *Movimentua*"? Ona emen, Aita Lukas Iru-retagoienak, errebeldeen kapellaua izan zanak, orren gainean diñoskuna: "Ez neban ikusi euren artean komunismo arrastorik. Sazerdotea



AITA LUKAS IRURETAGOIENA

«Ez neban ikusi euren artean komunismoaren arrastorik»

naizan aldetik, niretzako dana izan zan errez-tasuna ta laguntziñoa eurakandik. Moral altua dauke, eta ondo sustraituta daroe biotzean kristiñau espiritua".

Erantzun bera beste kapellau batek be, Aita Angel Rivas-ek. Bardin Aita Luis Zabala-k be, "La Quincena"-n ageturiko artikulu baten.

Cuba-ko katolikoak bete betean siñistu eutsen Fidel Castro-ri, Habana-ko alkarrizketa publiko baten esan ebanean: "Garagarril 26 *Movimentuak* ez deutso komunismoari bape zorrik".

Beste aldetik, ba-daki Fidel Castro-k zer dan kristiñau erlegiñoa. Ez zituan alperrik igaro amaika urte jesuitakaz bere gazte demporan. Urte asko dira gizon baten biotzean markarik ez itxiteko. "Kristiñau unada bat asten da Cuba-rentzat —esan eutson alkarrizketa baten Aita Llorente-ri, bere kolegio demporako profesore jesuiteari—. Problema agrarioa ebazteko

gingo doguzan legeak, printzipalki Eleiza Katolikoaren irakaspenak eukiko ditue kontuan."

"Zeregin sozialean, Fidel Castro-ren gobernuak —diño bere aldetik Aita Biain-ek— Europako partidu sozial-demokratikoen asmoak daukoz. Naziñoaren jokera barri onek pozez eta esperantzaz betetan gaitu, erriaren eta agintarien aurrerakuntza espiritual aundia aurretiaz ikusten dogu-ta. Arazo aundia dauko erreboluziñoak bere aurrean. Gobernu bariaren idea ta asmoak, batez beste, onak dira. Gu, katolikook, ezin geintek ez egon berari lagundu barik, besteak egiten dabenari begira. Oraingo momentu historiko onek geure kolaboraziñorik estuena eskatuten deusku, gobernuak bide zuzenetik urten ez daian"

"Au aurrera doa —diño "La Quincena" erre-vistearen Direktoreak aprillaren zortzian idatziriko karta beaten—. Asikerak beti izaten dira anormalak; bertoko semeak ez dakie ezetan-bere neurrik gordetan. Dana dala, erreboluziño historiko onek nire ustez, obarantz eroango dau naziñoa, batez-bere baserritarra. Eldu da sasoia, labradore pobre ta gizaixoa, dagoan egojera tristetik jasoteko. Justizia sozial estuagoa ikusten da artu-emon guztietan. Batzuk, bearbada, marxismoaren eta laizismoaren izenean egiten dabe justizia ori; baiña edozein gauza on eta egiazkoren atzean beti dago Jaungoikoa, beti dago kristianismoa."

Jaungoikoak jagon daiala Cuba!

Berriatua

«ANAITASUNA» DE VIZCAYA

DIRECTOR:

P. Manuel Berriatua

PP. Franciscanos, Bermeo, Vizcaya

ADMINISTRADOR:

P. Teófilo Arzállus

PP. Franciscanos, Zarauz, Guipúzcoa

Irakurri Bizkaiko ANAITASUNA

Eskatu Zarautzera

Urte beteko suskiziñoa: 12 peseta